

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Ikusgai otsailaren 29an

Richard Artschwager

Richard Artschwager

- Datak: otsailak 29 – maiatzak 10, 2020
 - Komisarioak: Germano Celant, komisarioa, eta Manuel Cirauqui, Guggenheim Bilbao Museoko arte-arduraduna
-
- Pinturaren eta eskulturaren artean, Artschwagerrek hizkuntza berezi bat garatu zuen bere garaian sortutako etxeko material berrietatik abiatuta, eta bere lanean figurazioa eta abstrakzioa, diseinua eta berrikuntza artistikoa elkartzera, eta gauza funtzionalak eta alferrikakoak konbinatzera jotzen zuen.
 - Labirinto ireki bat balitz bezala diseinatu da erakusketa, eta lanen sorta zabala dakar, hirurogeiko hamarkadan egindakoetatik mende honen lehenengo hamarkadan egindakoetara.
 - Artschwagerrek tokiak, eguneroko bizitzako eszenak eta altzari arruntak (mahaiak, aulkiak, armairuak, etab.) irudikatzen zituen, eta berrinterpretatu egiten zituen material industrial arruntak erabiliz; besteak beste, formika, Celotexa, pintura akrilikoa eta kautxuz estalitako zaldi-zurdak.
 - Artschwagerren obrak etengabe jartzen ditu zalantzan itxura eta funtsa, eta munduaren interpretazio fina eta errealista, umoristikoa eta, aldi berean, monumentala eskaintzen du.

Guggenheim Bilbao Museoa *Richard Artschwager* erakusketa dakarkigu. Aukera paregabea da Richard Artschwagerren sorkuntza-ibilbidea aztertzeko. Artschwagerrek (Washington, D. C., 1923 – Albany, New York, 2013) pinturaren eta eskulturaren artean egin zuen lan, eta hizkuntza berezi bat garatu zuen bere garaiko etxeko material berrietatik abiatuta. Germano Celant komisario ospetsuak prestatu du proiektua, eta Guggenheim Bilbao Museoa eta Mart – Museo di Arte Moderna e Contemporanea di Trento e Rovereto museoa antolatu dute. Proiektuak ia 70 obra biltzen ditu, eta baita oso gutxitan erakutsi diren artxiboko material eta dokumentuen sorta zaindu bat ere.

Labirinto ireki bat balitz bezala diseinatuta dago erakusketa, eta Artschwagerren obrako alderdi nagusiak jartzen ditu agerian. Lanen multzo zabala dakar, hirurogeiko hamarkadaren hasieran egindakoetatik XXI. mendeko lehenengo hamarkadan egindakoetara; hain zuzen ere, zurezko obra goiztiarrak, formikazko egiturak eta Celotex gaineko margolanak, nylon-ilezko eskulturak eta “izkinako obrak”, zaldi-zurdaz egindako piezak, eta *b/p* izenekoak (1968an hasi zen artista *b/p* izeneko esku-hartzeak egiten, banaka edo seriean, barnealde espezifikotik edo hirigune osoetan).

Artschwager ebanista izan zen bere ibilbide profesionalaren hasieran, eta oso garrantzitsua izan zen aldi hura. Beti nahi izan zituen elkartu figurazioa eta abstrakzioa, diseinua eta berrikuntza artistikoa, eta, ironikoa bada ere, gauza funtzionalak eta alferrikakoak konbinatzen saiatzen zen.

Bere pinturaren eta eskulturen bidez, Artschwagerrek ibilbide berezi bat proposatu zuen, eta eskulana eta industrializazioa konbinatu, espazioa eta bertako objektuak eta izakiak barnean hartuz. Artistak tokiak, eguneroko bizitzako eszenak eta altzari arruntak (mahaiak, aulkiak, armairuak, etab.) irudikatzen zituen, eta berrinterpretatu egiten zituen material industrial arruntak erabiliz; besteak beste, formika, Celotexa, pintura akrilikoa eta kautxuz estalitako zaldi-zurdak. Halaber, forma geometriko purua aztertu zuen, batez ere eskulturetan; abstrakzioan murgildu zen, eta irudi trinkoak erabili zituen nolabaiteko ilusionismo piktorikoa irudikatzeko.

Estilistikoki, Artschwagerrek berariazko anibalentzia erabili zuen, oso bereizgarria, eta hala, aurre egin zion minimalismoa edo pop artea bezalako joeren dogmatismo ikonografikoari. Ematen zuen azken horiek elkarren aurkako antagonismoa defendatzen zutela nolabait, baina Artschwagerrek, kontrakoen arteko gatazkei lekua utzi ordez, sintesia bilatu zuen; elementu eta aukera guztiak sartu zituen, oso ezberdinak izanda ere, eta integratu egin zituen. Adierazi zuenez, “gauza arrunten eta artelan gisa hautematen ditugun gauzen arteko muga interesatzen zait batez ere”.

Artschwagerren obrak etengabe jartzen ditu zalantzan itxura eta funtsa, eta ontologiaren, epistemologiaren eta estetikaren esparru filosofikoetan murgiltzen da zorroztasunez eta adimenez. Horri esker, munduaren interpretazio fina eta errealista, umoristikoa eta, aldi berean, monumentala eskaintzen du.

Artistari buruz

1923an jaio zen Richard Artschwager, Washington D. C.n, eta 2013an hil, Albany-n (New York). 1948an Cornell-eko Unibertsitatean (New York) lizentziatu ondoren, eskolak hartu zituen abstrakzioaren aitzindarietako batekin: Amédée Ozenfant artistarekin. Berrogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, Artschwagerri zurgintza interesatzen hasi zitzaion, eta altzari xumeak egin zituen. Hamarkada haren amaieran suak haren tailerra hartu eta suntsitu egin zuen. Ondorioz, zakarretara botatako material industrialak erabiliz hasi zen eskulturak egiten, eta, gero, pintura, marrazketa, kokapen zehatzeko instalazioak eta argazkilaritza ere sartu zituen bere jardunean.

Artschwagerrek bide bitxia egin zuen artearen munduan 1950eko hamarkadaren hasieratik XX. mendearen hasierara arte: espazioaren eta hura osatzen duten eguneroko objektuen asimilazio bisuala zerbait arrotza eta ezezaguna bihurtu zuen. Haren lanean (bai piktorikoa, bai eskultorikoa), intxaurrondo-zuraren bilbea imitatzen duen formikazko taula anonimo bat objektu horixe da, baina baita zurezko plano baten irudikapena ere; mahai bat eta aulki bat altzariak, eskulturak eta irudiak dira aldi berean, eta margolan edo eskultura bat irudi ugari izan daiteke, edo hiru dimentsioko natura hila. Irudien mundua —zeinak zentzumenen bidez antzematen baitira— eta objektuen mundua —zeinak fisikoki edukitzen baitira— behatzaile gisa dagokigun espazioan uztartzeko asmoz, Artschwagerrek lehen planoan kokatu zituen pertzepzioaren egiturak.

Artschwagerren lehenengo erakusketa 1959an izan zen, New Yorkeko Art Directions Gallery delakoan, eta, ondoren, 1965etik aurrera Leo Castelli galerista aitzindariak eskaini zizkion banakako erakusketa ugariak etorri ziren. Hona hemen artistaren mende Erdiko ibilbideari eskainitako atzerabegirako garrantzitsuetako batzuk: Vienako Museum für angewandte Kunst (MAK) museoa egindakoa (2002), Suitzako

Kunstmuseum Winterthur museokoa (2003) eta New Yorkeko Whitney Museum of American Art museoak antolatutakoa (2012).

DIDAKTIKA

BBK-k babesten duen Didaktika proiektuaren barruan, Richard Artschwagerren ibilbideari buruzko informazioa aurkituko dugu Museoaren webgunean erakusketari buruz prestatutako *Ba al zenekien...?* atalean; baita berrogeita hamarreko hamarkadaren hasieratik XXI. mendearen lehenengo hamarkadara bitartean haren lana zer testuingurutan kokatzen den ikasiko ere.

Gainera, erakusketari buruzko jarduera hauek egingo dira:

Elkarrizketa Germano Celantekin Richard Artschwagerri buruz(otsailak 26)

Germano Celant erakusketaren komisarioa da, eta nazioarteko erreferentzia arte garaikidean, historialari, teoriarari eta erakusketen komisario gisa. Celant solasean arituko da Guggenheim Bilbao Museoko arte-arduradun Manuel Cirauquirekin artista horren obren garrantziari eta berezitasunari buruz.

Hausnarketa partekatuak

Museoko Arte Ardurako eta Hezkuntzako profesionalek eskainitako bisitaldi eskusiboak; erakusketa berri honetako edukari buruzko ikuspegi desberdinak eskaintzen dituzte:

- Arte-arduraren ikuspegia (martxoak 11)

Manuel Cirauquik, Museoko arte-arduradunak, erakusketako obra nagusiak erakutsiko dizkigu.

- Funtsezko kontzeptuak (martxoak 25)

Luz Magureguik, Museoko Hezkuntzako koordinatzaileak, Artschwagerren obren alderdi orokorreari eta didaktikoei buruz hitz egingo du bertaraten direnekin.

*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre

***Shut up and Look* proiektzioa** (martxoak 20)

Maryte Kavaliauskasek zuzendu du, eta Morning Slayterekin batera ekoiztu dokumental hau. Richard Artschwagerren ibilbide polifazetikoa aztertzen du, artistaren beraren zuzeneko lekukotzaren bidez; artistak, umorez, bere filosofia sortzaile berezia azaltzen du.

Azaleko irudia:

Richard Artschwager

Atea } (Door }, 1983-84

Akrilikoa eta laka zur eta beira gainean, metala; bi atal

207,6 x 165,1 x 24,8 cm

Bilduma: Kerstin Hiller eta Helmut Schmelzer, maileguz honi emana: Neues Museum Nürnberg

Argazkia: Annette Kratisch

© Estate of Richard Artschwager, VEGAP, Bilbo, 2020

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel.: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Prentsak erabiltzeko irudiak
Richard Artschwager
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsa-irudien online zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa-eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es) erregistratuz gero, erakusketen eta eraikinaren bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatu ahal izango dituzu. Oraindik konturik ez baduzu, erregistratu eta deskargatu behar duzun materiala. Dagoeneko erabiltzailea bazara, adierazi erabiltzaile-izena eta pasahitza, eta sartu zuzenean irudiak deskargatzeko orrian.

- *Richard Artschwager* erakusketaren publizitatea egiteko soilik erabiliko dira irudi horiek. Erakusketa 2020ko otsailaren 29tik maiatzaren 10era egongo da zabalik Guggenheim Bilbao Museoa.
- Osorik agertu behar dira, moztu gabe, ezer gainjarri gabe eta manipulatu gabe. Horretarako, artistaren estudioak maketa onartu beharko du. Erreproduzioekin batera, artistaren izena, obraren izena eta data, jabearen kreditua, copyrighta eta argazkiaren kreditua adierazi behar dira.
- Online argitaratutako irudiak segurtasun-neurri elektronikoen bidez babestu behar dira.
- Irudiek gehienez 1.000 pizeleko bereizmena izango dute alderik luzeenean. Online argitalpeneko fitxategiak txertatuta egon behar du, eta ezin da izan deskargagarria.
- Irudiak ezin zaizkie transferitu hirugarrenei edo datu-baseei.
- Irudiak azalean erabiliz gero, baliteke zerbait ordaindu behar izatea, eta obraren copyrightaren jabe eta titularrak baimena eman beharko du.

Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoko prentsa-eremuarekin, telefonoz (+34 944 359 008) edo posta elektronikoen bidez (media@guggenheim-bilbao.eus).

Richard Artschwager

Mahaia eta aulkia (Table and Chair), 1963-64

Melamina eta zura

755 x 1320 x 952 mm

Objektua: 1143 x 438 x 533 mm

Tate: 1983an erositua

Argazkia: Tate

© Estate of Richard Artschwager, VEGAP, Bilbao, 2020



Richard Artschwager
Etxebizitza-eraikina (Apartment House), 1964
Liquitex-a, Celotex-a, formika
177 x 126,5 x 16 cm
Museum Ludwig, Köln
Dohaintza: Collection Ludwig, 1976
© Estate of Richard Artschwager, VEGAP, Bilbo, 2020



Richard Artschwager
Fabrika bateko nabea (Fabrikhalle), 1969
Akrilikoak pladur eta taula aglomeratu gainean, HPL
73,3 x 92,6 x 7 cm
Museum Ulm – Stiftung Sammlung Kurt Fried
Argazkia: Armin Buhl
© Estate of Richard Artschwager, VEGAP, Bilbo, 2020



Richard Artschwager
Dorrea III (Aitorlekua) [Tower III (Confessional)], 1980
Formika eta haritz-egurra
152,5 x 119 x 81,1 cm
Emanuel Hoffmann Foundation, mailegu iraunkorren honi emana: Öffentliche
Kunstsammlung Basel
Argazkia: Bisig & Bayer, Basel
© Estate of Richard Artschwager, VEGAP, Bilbo, 2020



Richard Artschwager
Bi puntuko ikuspegia (Two Point Perspective), 1994
Akrilikoak Celotex gainean, formika zur gainean, akrilikoak zur gainean
136 x 139 x 5 cm
Kunstmuseen Krefeld, Heinz and Marianne Ebers-Stiftung
© Estate of Richard Artschwager, VEGAP, Bilbo, 2020



Richard Artschwager
Atea } (Door), 1983-84
Akrilikoak eta laka zur eta beira gainean, metala; bi atal
207,6 x 165,1 x 24,8 cm
Bilduma: Kerstin Hiller eta Helmut Schmelzer, maileguz honi emana: Neues
Museum Nürnberg
Argazkia: Annette Kradisch
© Estate of Richard Artschwager, VEGAP, Bilbo, 2020



Richard Artschwager

Biharko egunaren bila (Search for Tomorrow), 2004

Akrilikoa eta zuntz-xafla artistak egindako markoarekin

120,6 x 189,2 cm

Bilduma pribatua

© Estate of Richard Artschwager, VEGAP, Bilbo, 2020



Richard Artschwager

Harridura ikurra (Exclamation Point), 2010

Plastikozko zurdak latexez bernizatutako kaoba-egurrezko erdigunearen gainean

165,1 x 55,9 x 55,9 cm

Bilduma pribatua

Eskaintza: Gallery Xavier Hufkens (Brusela)

Argazkia: Allan Bovenberg

© Estate of Richard Artschwager, VEGAP, Bilbo, 2020



Richard Artschwager

Emakumea zutik (Dirne) [Standing woman (Dirne)], 1999

Akrilikoa eta ile gomaztatua Masonite gainean

213,4 x 114,3 x 6,4 cm

Bilduma partikularra, Viena

© Estate of Richard Artschwager, VEGAP, Bilbo, 2020



Richard Artschwager

Gizonen hiria (City of Man), 1981

Akrilikoa eta ikatz-ziria Celotex eta metakrilatodun plastikozko laminatu gainean

197,5 x 458 x 13,3 cm

Whitney Museum of American Art, New York

Agindutako dohaintza: Emily Fisher Landau

P.2010.17.a-c

© Estate of Richard Artschwager, VEGAP, Bilbo, 2020



Richard Artschwager

Zero erretratua (Portrait Zero), 1961

Zura, torlojuak eta soka

114,9 x 68,7 x 14 cm

Sammlung Michalke, Alemania

© Estate of Richard Artschwager, VEGAP, Bilbo, 2020



Richard Artschwager

Ehuna (Berdea) [Weave (Green)], 1991

Akrilikoa eta Celotex-a ohol gainean

171,2 x 131 x 9 cm

Eskaintza: Galleria Alfonso Artiaco, Napoles

Argazkia: Luciano Romano

© Estate of Richard Artschwager, VEGAP, Bilbo, 2020



Richard Artschwager

Mahaia prest etsaien aurrean II (Table Prepared in the Presence of Enemies II), 1992

Zura, metala, torlojuak eta formika

The SY2 Collection, Switzerland

© Estate of Richard Artschwager, VEGAP, Bilbo, 2020



Richard Artschwager

Mahai-ziprztina (Splatter Table), 1992

Laminatua, zura, aluminioa

Neurri aldakorrak

Collection S.M.A.K., Stedelijk Museum voor Actuele Kunst Ghent

© Estate of Richard Artschwager, VEGAP, Bilbo, 2020



Richard Artschwager

Hemendik - hortik (This Way - That Way), 2012

Akrilikoa eskuz egindako paper gainean, soinua isolatzeko taula gainean

130 x 116,8 cm

Augustus and Clara Artschwager Collection, Gagosian galeriak eskainia

© Estate of Richard Artschwager, VEGAP, Bilbo, 2020

